

kultur leihoa • kultur leihoa • kultur leihoa

ezagutzen al
duzu Donostia?

Untzaene



Untzaene baserria eta bere baratzak.

Antiguako parrokiaren ondotik abiatuta Miramar jauregiko parkearen hormak ezkerreko aldera genituela, baserri bide zahar bat zegoen. Bide zahar honi gure zaharrek «estrata» deitzen zioten, Antiguatik *Munto* baserrira zihoan estrata zen hura hain zuzen ere. *Soldaduene* deituriko baserriaren ondotik gora zihoan bide maldatsu estu-estua zen eta aipatutako jabegoaren hormatzarra inguratzen zuen. Orain urte gutxira arte horma horien artean zutik zeuden *Jaloene* edo «Casavacas» deituriko baserri zaharraren murru ilunak hontza gaueko pizti harripakariaren babesleku ziren. Horma zahar hauen aurrean eta bidearen eskuineko aldetik *Txirain* baserria zegoen bere sagasti ederrekin. *Txirainen* ondoren eta errenkadan beste bost



Untzaene baserriko harearrizko gurutze polita. Gipuzkoako kostaldeko baserri askotan agertzen da ezaugarri hau.

baserri zeuden: *Untzaene*, *Portuene*, *Gantxegi*, *Juanindegi* eta azkena *Erramundegi*, *Munto* baserrira heldu baino lehen. Azken hogeita hamar urte hauetan estrata, murru eta baserriak, hau da, inguru erromantiko guzti hura desagertzen joan da poliki-poliki baina ez erabat, gaur oraindik hor daukagu

zutik *Untzaene* baserri xarmanta, lehen bezala baratz, lore eta sagastiz inguratua. Betirako ezkutatatu zen paisaia baten lekukoa. Ibaeta eta Lugaritz distritu zaharrak ordezkatu zituen Antigua auzo handian gelditzen den ia aztarna bakarra.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: JOSU TELLABIDE

La Casa
del Café

- Juan Iriondo S.A. -
DONOSTIA

